


[Ikusi bideo](#) [Ver video](#)


XVI. BEASAINGO
MENDI
Festibala



# XVII. BEASAINGO MENDI FESTIBALA

***"Beasaingo Mendi Festibala"*** ezin galduzko zitetako bat da mendia maite dutenentzat. Edizio berri honetan mendi festibal bat baino zerbait gehiago izatea lortu nahi dugu, hain zuzen ere, mendiaren inguruan bizitako bizitzei buruzko festibala izatea nahi dugu. Denetariko gaiak eskaini nahi ditugu: espedizioak, eskaladak, mendiko trailak, eskia, ertzeko egoeren esperientziak, nola ez, irudi ikusgarriak eta askoz ere gehiago…, baina bereziki, mendia ikusteko eta ulertzeko modu ezberdinak bilatzen dituen festibala nahi dugu.

Aurtengoa "XVII. Beasaingo Mendi Festibala" izango da eta ***Urriaren 15, 16, 22 eta 23an eta azaroaren 6an*** izango ditugu emanaldiak. Ikus-entzunezko guztiak ***Usurbe Antzokian izango dira 19:30ean***. ***Arrastaka Mendi Taldeak eta Aizkorri Mendizale Elkarteak*** antolatzen dute ***Ayuntamiento de Beasaingo*** Udalaren laguntzarekin.

Bost ikus-entzunezkok osatuko dute "Beasaingo Mendi Festibala"ren hamazazpigarren edizioa eta parada ezin hobea izango da mendizaletasunaren inguruko esperientziak ezagutu, elkartrukatu eta partekatzeko.

Aurreko efizioetan bezalaxe, aurten ere, mendizaletasunean eta abenturan ezagunak diren pertsonak izango ditugu gure artean eta aurrez aurre kontatuko dizkigute mendian bizi izandakoak.

Aurtengo gonbidatuak honakoak izango ditugu: ***Luis Arrieta & Xabier Zarranz, Donnay Anaiak, Nieves Gil & Lucia Guichot, Mikel Saez de Urabain*** eta bukaera ezin hobea emateko, ***azaroaren 6an, Pasang Temba*** izango dugu gure artean (1980an Martin Zabaletarekin batera Everesteko gailurra zapaldu zuen Sherpa).

# XVII. BEASAINGO MENDI FESTIBALA

***"Beasaingo Mendi Festibala"*** es una de las citas más esperada para los amantes de la montaña. Queremos conseguir en esta nueva edición que sea algo más que un festival de montaña, que sea un festival de vidas alrededor de la montaña. Queremos ofrecer un amplio abanico de temáticas: expediciones, escaladas, trails de montaña, esquí, experiencias extremas vividas y por supuesto imágenes espectaculares y mucho más …, pero sobre todo queremos un festival que busca diferentes maneras de ver y entender la montaña.

Este año celebraremos la "XVII. Beasaingo Mendi Festibala" los días ***15, 16, 22, 23 de Octubre y el día 6 de Noviembre.*** Todas las proyecciones se celebrarán en ***Usurbe Antzokia a las 19:30h***. Está organizada por ***Arrastaka Mendi Taldea y Aizkorri Mendizale Elkartea,*** con la colaboración del ***Ayuntamiento de Beasain.***

Cinco proyecciones darán forma a la decimoséptima edición de la "Beasaingo Mendi Festibala", el marco idóneo para conocer, intercambiar y compartir experiencias en torno al montañismo.

Como en ediciones anteriores este año contaremos con la presencia de caras conocidas en el mundo de la montaña y la aventura, que nos relatarán en primera persona sus experiencias vividas en la montaña.

Este año contaremos con la participación de: ***Luis Arrieta & Xabier Zarranz, Donnay Anaiak, Nieves Gil & Lucia Guichot, Mikel Saez de Urabain*** y como colofón, ***el día 6 de Noviembre***, contaremos en persona con la presencia de ***Pasang Temba*** (Sherpa que acompañó a Martin Zabaleta a la cima del Everest en 1980).

Arrastaka Aizkorri Mendizale Elkartea Beasaingo udala




## “212 MOUNTAINS”

“212 Mountains”

**LUIS ARRIETA & XABIER ZARRANZ**

Urriak 15, Asteartea.

Usurbe Antzokian. 19:30ean

Zikloa ***urriaren15ean***, asteartea, hasiko da ***“212 Mountains”*** ikus-entzunezkoarekin ***Luis Arrietaren*** eskutik (dokumentalaren zuzendaria). ***Xabier Zarranz*** ere bertan izango da (trail lasterkaria)

*“Xabier Zarranz (Barañain 1981), 20 urtez mendiko trailetan parte hartzen egon ondoren, elitezko konpetizioaz aldentzea eta Euskal Selekzioa uztea erabakitzen du. Urte hartan ustekabean estatu mailako 2 lasterketa garrantzitsuenetatikoak irabaztea lortzen du: Gran Trail Aneto_Posets (105km/6.760m+) eta Canfranc-Canfranc (100km/8.848m+). Gertakizun honek bere etorkizuna plantearazten dio, Pirineotako 3.000 metroko 212 gailurretako batzuk zeharkatzen dituen bitartean. Xabi Zarranz eta Luis Arrieta (Kamara), Balaitusetik (3.144m) Pica d´Estatera (3.143m) joango dira Nafarroako mendi korrikalari onenetarikoen kirol ibilbideaz zein personalaz ausnartzeko.”*

---

*El ciclo arrancará el martes, día* ***15 de octubre****, con la proyección “****212 Mountains****” de la mano de* ***Luis Arrieta*** *(Director del documental). Contaremos además con la presencia de* ***Xabier Zarranz*** *(corredor de trails)*

*“Xabier Zarranz (Barañain 1981), tras 20 años compitiendo en Trails de montaña decide dejar la Euskal Selekzioa y alejarse de la competición de elite. Ese mismo año, de manera inesperada, logra ganar dos de las ultras más relevantes del circuito estatal, Gran Trail Aneto-Posets (105 km/6.760m+) y Canfranc-Canfranc (10 km/8.848m+). Este hecho le hará replantearse su futuro a lo largo de un viaje recorriendo algunas de las 212 cimas de más de 3000 metros del Pirineo. Xabi Zarranz y Luis Arrieta (cámara) unirán el Balaitous (3.144m) con la Pica d´Estat (3.143m) para reflexionar sobre la trayectoria personal y deportiva de uno de los mejores corredores Navarros de montaña.”*



“SOKAK EGIN GAITU ANAI”.

**DONNAY ANAIAK**
Urriak 23, Asteazkena.
Usurbe Antzokian. 19:30ean

***16an, Donnay Anaiak*** izango ditugu ***“Sokak egin gaitu anai”*** emanaldiarekin.

“Donnay Anaiak eskalada eta mendia maite dituzten bi anaien fusioa da. Etengabeko esekiduran dagoen mundu batean mendiaren balioak batzeko kordada. Bere esperientziak eta bizipenak besteekin partekatzen dituen proiektua ere bada. Horrela, bi ideia sortzen dira: bata, bere abenturak eta eskaladak kontatzearen ingurukoa, eta bestea, lanbide gisa partekatutako esperientziak eskaintzen dituena. Mendietan zehar planetatik planetara bidaiatzen dabiltzan bi anaia.



*En la proyección del **día 16** contaremos con la presencia de **Donnay Anaiak** que nos presentarán su trabajo **"Sokak egin gaitu anai".***

*"Donnay Anaiak es la fusión de dos hermanos apasionados por la escalada y la montaña. Una cordada para unir los valores de la montaña en un mundo en constante suspensión. Es también un proyecto que comparte sus experiencias y vivencias con los demás. Creando así dos ideas, una que gira en torno a relatar sus aventuras y escaladas, y otra que ofrece experiencias compartidas a modo de profesión. Dos hermanos que juntos recorren las montañas viajando de planeta en planeta."*







## "EKINTZAZ BETETAKO URTE BAT"
"Historias de cordadas"

**NIEVES GIL & LUCIA GUICHOT**
Urriak 22, Asteartea.
Usurbe Antzokian. 19:30ean

***22an, asteartea, Nieves Gil eta Lucía Guichot*** mendigoizaleak izango ditugu ***"Historias de cordadas"*** ikus-entzunezkoa aurkezten.

Nieves Gil, naturaren babeserako eragile aragoitarra, eta Lucía Guichot, goi mendiko gida madrildarra, soka-lagunak dira 2018tik 2021era FEDMEren Espainiako goi mendiko talde femeninoan elkarrekin ibili zirenetik. Ordutik aipamena merezi duten jarduera asko egin dituzte elkarrekin, besteak beste, Eigerren ipar aurpegia eskalatzea, lehen espainiar kordada femeninoa izan zen, edota Patagonian Fitz Roy eskalatu zutenekoa.

Aurkeztuko diguten ikus-entzunezkoan beraien goi mendiko ibilbidea kontatuko digute, eta horretan baitan Pakistango Karakorumen, Trangoko dorreetan "Eternal Flame"-era egindako azken igoera ere bai bereziki. 1989an Kurt Albert eta Wolfgang Güllic eskalatzaile ezagunek irekitako 800m eta 6c+ A1/A2 zailtasuneko bide mitikoan, lehenbiziko igoera femenino espainiarra izan zen. Bide hau, bere 6.240 metroekin, munduko biderik politenetakoa eta zailenetakoa dela diote. 4100m-ra dagoen oinarrizko kanpamendutik irten zirenetik 7 gau eta 8 eguneko iraupena izan zuen abentura gogorra kontatuko digute mendigoizaleek: esloveniar bidearen lehen 9 luzeak eskalatuz hasi eta K2, Broad Peak edo G4 bezalako erraldoienpean Baltoro glaziarreko treking ezaguna igoz amaitu zutena, hain zuzen ere.



El ***martes, día 22,*** nos acompañaran las alpinistas ***Nieves Gil y Lucía Guichot*** presentándonos su trabajo titulado ***"Historias de cordadas".***

La aragonesa Nieves Gil, agente de protección de la naturaleza y la madrileña Lucía Guichot guía de alta montaña, son compañeras de cordada a raíz del equipo femenino español de alpinismo FEDME durante los años 2018-2021, tras ese periodo han seguido haciendo muchas actividades juntas, en la que cabe destacar la primera cordada femenina española en ascender la cara norte del Eiger, o el viaje a la Patagonia donde pudieron escalar el Fitz Roy.

En la proyección que nos presentan nos cuentan su trayectorias como alpinistas y más concretamente la última ascensión a la vía "Eternal Flame" en las Torres del Trango, en el Karakorum Pakistaní. Donde realizaron la primera ascensión española femenina a esta mítica vía de 800m 6c+ A1/A2 que abrieron reconocidos escaladores como Kurt Albert y Wolfgang Güllic en el año 1989, la ruta está calificada como una de las vías más bonitas y de mayor dificultad en altura del mundo con sus 6.240 metros. Las alpinistas nos cuentan su aventura que duro 7 noches y 8 días desde que salieron del campo base a 4100 m, accediendo a la vía escalando los 9 primeros largos de la vía Eslovena. Y finalizando la ascensión con el conocido treking por el glaciar del Baltoro, bajo los pies de algunos gigantes como el K2, el Broad Peak o el G4.





“BHAGIRATHI III”
Hego mendebalde ertza.

**MIKEL SAEZ DE URABAIN**
Urriak 24, Asteaakena
Usurbe Antzokian. 19:30ean

***Urriaren 23an, asteazkena, Mikel Saez de Urabain*** mendigoizale/eskalatzaile entzutetsua izango dugu gurea artean ***“Bhagirathi III, hego mendebaldeko ertza”*** ikus-entzunezkoa aurkeztuz.

Iazko irailaren 26an, ***Mikel Saez de Urabainek*** (56 urte), ***Jose Maria Andres de La Torre*** madrildarrak (53 urte), ***Alex Kammerlander*** tenerifearrak (50 urte) eta ***Ruben Perez Blazquez*** errioxarrak (45 urte) osatutako eskarmentu eta esperientzia handiko eskalatzaileen taldeak, 6.454m-ko Bhagirathi III mendiaren gailurra egitea lortu zuen Indiako Himalaian, 2004ko Starway to Heaven eta 1982ko Bob Barton eta Alan Fyfferen bide eskoziarra konbinatuz.

*“7 gau pasa behar izan genituen hamakan 6b+/A2 M5+ 80º-ko 1.400m egiteko”,* diotsu Mikelek. Hamakak-gailurra-hamakak jardunaldia “non stop” (gelditu gabekoa) izan zen irailaren 25eko goizeko 2.00etatik 26ko goizeko 9:00ak arte.

*“Ez genuen denborarik eta behar adina janaririk azken luzeak irekitzeko eta gailurrera iritsi ahal izateko bide eskoziarrera pasatzea erabaki genuen”.*

Mikelek honela dio: *“Espedizioaren balorazio oso positiboa egiten dut. Gure lehentasuna denok saao eta salbu itzultzea zen, eta hori lortu dugu. Gure harremana perfektua izan dela esatera ausartzen naiz, abentura hasi aurretik ia ez genuen elkar ezagutzen eta lagun on eginda itzuli gara. Harro eta pozik nago mendian egindako lanarekin. Nire kasuan, 55 urterekin, gailurra zapaldu ahal izatea ez da ametsa bakarrik, ilusioaren bidean aurrera jarraitzeko pizgarria da*”.

En la proyección del ***miercoles 23 de octubre*** contaremos con la presencia del prestigioso alpinista/escalador ordiziarra ***Mikel Saez de Urabain*** que nos presentará su trabajo ***"Bhagirathi III, hego mendebalde ertza".***

Un grupo de veteranos y experimentados escaladores, formado por Mikel Sáez de Urabain (56 años), el madrileño José María Andrés de La Torre (53 años), el tinerfeño Alex Kammerlander (50 años) y el riojano Rubén Pérez Blázquez (45 años), consiguieron el día 26 de septiembre del año pasado hacer cima en los 6.454m del Bhagirathi III, en el Himalaya hindú y lo hacían a través de una combinación entre la vía Starway to Heaven, de 2004 y la escocesa de Bob Barton y Alan Fyffe, de 1982.

*"Tuvimos que pasar 7 noches en la hamaca para completar un total de 1.400m, con dificultades de 6b+/A2 M5+ 80º",* nos comenta Mikel. La jornada de cumbre hamacas-cumbre-hamacas se alargó non-stop desde el 25 de septiembre a las 2:00am, hasta las 9:00 del día 26.

*"No pudimos abrir estos últimos largos por el escaso tiempo del que disponíamos y también motivados por la falta de víveres, entonces decidimos optar por pasarnos a la vía escocesa, y así llegar a cumbre"*.

Mikel nos cuenta: *"Valoró muy positivamente la expedición. Nuestra tarea principal era lograr que todos regresáramos sanos y salvos, y eso se ha logrado. Me atrevo a decir que nuestra relación ha sido perfecta, apenas nos conocíamos antes de empezar esta aventura y volvemos como buenos amigos. Estoy orgulloso y feliz del trabajo realizado en la montaña. Poder pisar la cima, en mi caso con 55 años, no es sólo un sueño, sino un estímulo para seguir por el camino de la ilusión".*





## “EVEREST 1980”

**PASANG TEMBA (Sherpa)**
Azaroak 6, Asteazkena
Usurbe Antzokian. 19:30ean

Eta azkenik, ***azaroaren 6an***, asteazkena, ikus-entzunezkoen zikloa isteko ***Pasang Temba sherpa*** aurrez aurre aurkezteko ohore handia izango dugu ***“Everest 1980”*** emanaldiarekin.

1980ko maiatzaren 14a Martin Zabaleta hernaniarrak eta Pasang Temba sherpak Everest mendiko gailurra elkarrekin egin zuten eguna da. *“Euskal mendizaletasun guztia Everesteko gailurrera iritsi zen eguna”*

Martin Zabaletak euskal alpinismoaren garaipena duela 44 urtetik Everesten kokaatzen badu, une horri lotuta dagoen irudia Pasang Tembaren aurpegi beltzaran eta eguzkiak eta haizeak gorritua da, munduko gailurreraino lagundu zion sherparena hain zuzen (Nepalgo eskualde menditsuetan bizi den etnia da sherpa). Bera da gailurreko argazkian eskuineko eskuan pioleta eta gainean Nepalgo bandera eta ikurrina dantzan direla ageri dena.

80ko hamarkadaren hasieran erronka handia zen artean Everest eskalatzea, eginahal handia, gainditze saiakera ikaragarria eta ia gizatiarra ez zen irmotasuna eskatzen zituen ertzeko abentura zen. Euskal Herriko 12 gazte haiek, borondate handiko sherpa taldearekin batera, euren buruari jarri zioten erronka eta zerua ukitu zuten.

Hitz hauekin kontatzen zuen Pasang Tembak, gailurra egin ondoren, Martin Zabaletarekin bibakean pasa behar izan zuen gaua Pyrenaica aldizkarian *“Gauean zehar ez nuen ezertan pentsatu eta goizean ohartu nintzen bizirik nengoela. Nik lo hartzen nuen, baina Martinek ez zidan uzten eta besoake ta hankak astintzen zizkidan berotan sartzeko. Xabier Garaioak eta Pembak ez zuten lorik egin eta irratitik hitz egiten ziguten, baina geunden egoeran ezin genien erantzun. Ondoren, jaitsieran, bi aldiz erori nintzen”.*

*Posteriormente,* ***el miercoles 6 de noviembre,*** *para cerrar el ciclo de audio-visuales tenemos el inmenso orgullo de presentar en persona al* ***sherpa nepalí Pasang Temba “Everest 1980”.***

*El hernaniarra Martin Zabaleta junto al sherpa nepalí Pasang Temba coronan el Everest el 14 de mayo de 1980. “El día en que todo el montañismo vasco subimos al Everest”*

*Si Martín Zabaleta personaliza desde hace 44 años el éxito del alpinismo vasco en el Everest, la imagen asociada a este momento tiene el rostro oscuro y reque-mado por el sol y el viento de Pasang Temba, el nepalés de la etnia sherpa que lo acompañó hasta la cima del planeta. El mismo que aparece en la foto de cima sujetando un piolet en su mano derecha sobre el que ondean dos banderas, la de Nepal y la ikurriña.*

*A comienzos de la década de los 80 escalar el Everest era todo un reto, toda una aventura al límite que suponía una experiencia de esfuerzo, superación y te-nacidad extrahumana. Y aquellos 12 muchachos de Euskal Herria, ayudados por un voluntarioso grupo de sherpas, se retaron a ellos mismos y tocaron el cielo.*

*Así nos relataba Pasang Temba en la revista Pyrenica la noche que tuvo que vivaquear con Martín Zabaleta, tras alcanzar la cumbre del Everest “Durante la noche no pensé en nada y fue por la mañana cuando sentí que me encontraba vivo. Yo me dormía, pero Martín no me dejaba y me frotaba los brazos y las piernas para entrar en calor. Xabier Garaioa y Pemba no durmieron y nos hablaban por la radio, pero en la situación que estábamos no les podíamos contestar. Después, en el descenso, me caí dos veces”.*





# ESKALADA PRAKTIKAK

## ANTZIZAR KIROLDEGIKO ROKODROMOAN

Urriak 26, larunbata

Ikus-entzunezkoen zikloaz gain, ***urriaren 26an, larunbata, Antzizar Kiroldegiko rokodromoan,*** ate irekien jardunaldia eskainiko da. Beraz, heldu zein haur, era honetako jarduueretara gerturatu eta hastapen urratsak emateko aukera izango da animatzen diren guztientzat. Ekintza honen ordutegia goizean ***10:00etatik 14:00etara*** eta arratsaldean ***16:00etatik 19:30era*** izango da."

---

Además del ciclo de proyecciones, ***el sábado día 26 de octubre***, podremos disfrutar en el ***rocódromo del polideportivo Antzizar*** de una jornada de puertas abiertas que permitirá acercarse a este tipo de actividades a grandes y pequeños, pudiendo iniciarse en este deporte todas aquellas personas que lo deseen. El horario de esta actividad será a la mañana de ***10:00h hasta 14:00h*** y por la tarde de ***16:00 h a 19:30 h.***



Anbizio handiko egitarau betea eta erakargarria antolatu dugula uste dugu zalantzarik gabe. Ziur gaude bertaratutakoak gustura geldituko direla eta mendiko kirolen topagune, bultzada eta zabalkunderako aukera paregabea izango dela.

Eskerrak eman nahi dizkiogu ***Beasaingo Udalari*** emandako laguntzagatik eta elkarlanagatik, horrenik gabe Mendi Festibal hau antolatzea ezinezkoa bailitzateke..

***Arrastaka Mendi Taldearen*** eta ***Aizkorri Mendizale Elkartearen*** izenean, orokorrean kirolzaleak zareten guztioi eta bereziki mendizaleak zaretenoi, Beasaingo Mendi Festibalaren zita honetan gurekin batera parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

---

Sin duda, pensamos que hemos organizado un apretado y ambicioso cartel que a buen seguro dejará muy buen sabor de boca a los asistentes y servirá de encuentro, motivación y divulgación de los deportes de montaña.

Queremos agradecer al ***Ayuntamiento de Beasain*** por su ayuda y colaboración, puesto que sin ella esta Mendi Festibala no hubiera sido posible realizarla.

***Desde Arrastaka Mendi Taldea*** y ***Aizkorri Mendizale Elkartea*** invitamos a todos los aficionados al mundo del deporte en general, y de la montaña en particular a que nos acompañen en esta nueva cita de la Beasaingo Mendi Festibala.

Arrastaka Aizkorri Mendizale Elkartea Beasaingo udala